

## MOZIOA, OÑATIKO UDALAREN OSOKO BILKURARI AURKEZTUA

Behean sinatzen duten talde politikoeek mozio hau proposatzen dute hurrengo osoko bilkuran onar dadin:

OÑATIKO UDALA	
Eregistro Data	
2012 ABE 18	
SARTZENA	IRTEERKA
2423	

### ZIOEN AZALPENA

HERRIRA mugimenduak, Giza Eskubideen Deklarazioaren edukia aintzat harturik, euskal presoei aplikatzen zaizkien espetxe-neurri salbuespenezkoak indarrik gabe uztea eskatzen du.

Zehazki, sakabanaketa-politikari amaiera ematea eskatzen du, kartzelan dauden pertsonak eskubidea baitute zigorra etxetik hurbil betetzeko. Eskatzen du, bestetik, gaixotasun larria duten hamahiru presoak libre gelditu daitezela, eta Estrasburgoko Europako Giza Eskubideen Auzitegiaren epaia bete dadila, eta beraz, aska ditzatela zigorra bete duten 67 presoak (haien artean Alberto Plazaola dago, 21 urte daramatzana giltzapean, herri honetako bizilaguna).

Salbuespen neurri hauek sufrimendu handia eragiten dute gizartean, zuzenean neurri horiek jasaten dituztenei, baita gizarte osoari ere, apustu garbia egin baitu bakearen eta giza eskubideen errespetuaren alde. Eta sufrimendu hau buka dadin, neurri hauek desagerrarazteko, aski litzateke legeria arrunta aplikatzea.

HERRIRAK egiaztatu du gehiengo handiak bere egiten dituela aipatutako eskaerak. Horregatik, proposamena egiten die herritarrei giza eskubideen eta bakearen aldeko akordio sozial zabala egiteko, gutxienekoen taula bat presoen eta erbesteratuen problemari heltzeko, modu eraikitzailean eta egiazko konponbideak bilatu nahian betiere.

Eskaera honen atzean gizartea dagoela ikusarazteko, akordio sozial zabal honen ispilu izan dadin, HERRIRA mugimenduak manifestazio handi baterako deia egin du. Mobilizazioa Bilbon izanen da, urtarrilaren 12an, goiburu honekin: **“Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira”**.

Horregatik guztiatik, ERABAKI hauek hartzeko eskatzen diogu Oñatiko Udalari:

1.- Espainiako Gobernuari eskatzea presoen eta haien hurbilekoen giza eskubideak errespetatzen dituen espetxe politika aplikatzeko. Neurri hauek zigorra bizilekutik hurbil betetzeko eskubidea eta osasun eskubidea bermatu behar dituzte, baita beraien zigorra bete duten presoen askatasuna eta zigorraren 3/4ak (edo 2/3ak) bete dituzten baldintzapeko askatasuna.

2.- Udalaren kezka adieraztea astebururo presoen senitarteko eta lagunek sufritzen duten arriskua dela-eta, eta elkartasuna adieraztea sakabanaketaren biktima guztiei.

2.- Espainiako Gobernuari eskatzea bete dezala Europako Giza Eskubideen Auzitegiak 2012ko uztailean emandako epaia, eta, ondorioz, ez diezaiola zigorra luzatu 21 urte kartzelan daramatzan Alberto Plazaola herrikideari.

3.- Aditzera ematea Udala prest dagoela herriko bizilagun presoen giza eskubideen defentsan lan egiteko, eta haien senitarteko eta hurbilekoen egoera arintzeko.

4.- Horregatik guztiagatik, udal honek bat egiten du Herrira mugimenduak deiturik urtarrilaren 12an Bilbon “Giza eskubideak, konponbidea, bakea. Euskal presoak Euskal Herrira” goiburuarekin eginen den mobilizazio orokorrarekin, eta adierazten du prest dagoela akordio sozial zabal horren alde lan egiteko.

5.- Udal honek erabaki honen berri emanen die herritarrei, eta bakearen eta giza eskubideen errespetuaren aldeko lanean inplikatu daitezzen animatuko ditu udalerriko bizilagunak.

BILDU UDAL TALDEA

